



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. legegintzaldia

Iruñean, 1998ko abenduaren 4an

93 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru Lege Proiektuak:

- Ingurugiroa kudeatzeko neurri administratiboei buruzko Foru Lege proiektua. Aurkezturiko emendakinak (3. or.).
- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Lege proiektua. Osoko Bilkurak baztertutako osoko emendakinak (8. or.).
- 1999ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua. Osoko Bilkurak baztertutako osoko emendakinak (9. or.).
- Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleen ordainketei buruzko Foru Legea. Osoko Bilkurak onetsia (9. or.).

B SAILA:

Foru Lege Proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Administrazio jarduleak urbanizazio-zametan partehartzerik izan ez dezan, lurjabeek lurzorua derrigorrez eta doan lagatzearen ondoriozkoetan. Osoko Bilkurak bazter utzia (11. or.).
- Foru Lege proposamena, hirigintza probetxamenduaren arloko presako neurriei buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (11. or.).
- Foru Lege proposamena, lanaldia 35 ordukoa izan dadin laguntzeko eta lan denbora banatzeko neurri publikoak ezartzeari buruzkoa. Osoko Bilkurak aintzat hartua (11. or.).
- Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena, administrazioarekin kontratatu ahal izateko betekizunen arloko hainbat kontzepturi dagokiona. Osoko Bilkurak aintzat hartua (12. or.).

G SAILA:

Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:

- Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentura 1998ko martxoan bidali dituen Ebazpenen eta Foru Agiduaren bitartez gauzatutako aurrekontu-aldaketak eta Kontuen Ganbarak horiei buruz emandako txostena (13. or.).

H SAILA:

Bestelako Testu Arau Emaileak:

— Frekuentzia modulatuak uhin metrikozko irrati emisoreetarako baimenak emateko kontratazio-espeditari buruzko Parlamentuko Ikerketa Batzordea sortzea. Osoko Bilkurak onetsia (18. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Ingurugiroa kudeatzeko neurri administratiboei buruzko Foru Lege proiektua

AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

Biltzarreko Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoa betez, ingurugiroa kudeatzeko neurri administratiboei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztu zaizkion emendakinak Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzen da. Proiektu hori 1998ko urriaren 19ko 79 zk.ko Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

2. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

1. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikulua aldatzeko emendakina.

Hauxe proposatzen da: 13/94 Foru Legearen atalak birrantolatzea, bai aipatu Legeak hasiera baten zuen 4. artikulukoak, bai administrazio-neurri buruzkoak, ondoko hurrenkerarekin: a, d, b, e, c, f, g.

Zioak: plangintza, kudeaketa eta informazio jarduerak antolatzea.

2. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Bigarren artikuluko f) atala aldatzeko emendakina: "... eta ekoizleak emandako destinoa..."

Zioak: azken destinoa edo beste edozein izan daiteke.

3. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

3. EMENDAKINA

«UNION DEL PUEBLO NAVARRO»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Hirugarren artikuluko lehen lerroaldea aldatzeko emendakina. Honela geratuko litzateke idatzita:

“Nafarroako Gobernuak behar diren neurriak hartuko ditu hondakin inportatuak ez daitezen onar Nafarroako Foru Komunitateko tratamendu zentroetan, honako inguruabarrak gertatzen badira:”

Zioak: aurreko artikuluetan erabili den idatzeko sistema berari jarraitzearen.

4. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

Hirugarren artikuluko a) letraren azkeneko bi lerroak aldatzeko emendakina.

3.a) artikulua. Honela uztea proposatzen da: "...hondakinak bildu eta/edo baloratu".

Zioak: hondakinak Nafarroatik kanpoko tokietatik inportatu eta "Nafarroan deusezteko" aukera kendu egin nahi da.

5. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Hirugarren artikulua aldatzeko emendakina.

3. artikuluko testuan, haren a) letran, hurrengo esaldia kentzea proposatzen da: "edo deusezteko".

Zioak: hondakinak hartu eta Nafarroan deuseztea saihestu nahi da, hondakin tratamenduko prozesu finalista hori, alegia.

**4. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO
EMENDAKINAK****6. EMENDAKINA****MARTIN LANDA MARCO****FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA**

4.1 artikulua bi azken lerroak aldatzeko emendakina.

4. artikulua. 1. Honela idatzita uztea proposatzen da: "...aplikatzea Nafarroako Foru Komunitatean sorturiko hondakinen tratamenduan".

Zioak: Nafarroan sorturiko hondakinen tratamenduan izan daitezkeen "kortseak" saihestu nahi dira, Foru Komunitatean instalazio egokiak ez baldin badira.

7. EMENDAKINA**«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

4.1 artikuluko bigarren lerroaldea aldatzeko emendakina: "... hondakinak non sortu diren, ahalik eta tokirik hurbilenean tratatuko dira".

Zioak: ez da bidezko hondakinak sortu diren tokiaren arabera bereiztea.

8. EMENDAKINA**«IZQUIERDA UNIDA-
EZKER BATUA DE NAVARRA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

4.2. artikulua aldatzeko emendakina.

Esaten duenean: "... Baloratzeko eta deusezteko metodoak Foru Lege honetako I. eranskinean

an adierazitakoak dira"; hauxe esan behar du: "... Berrir erabiltzeko, baloratzeko eta deusezteko metodoak Foru Lege honetako I. eranskinean adierazitakoak dira".

Zioak: egokiago deritzogu idazkera horri.

9. EMENDAKINA**MARTIN LANDA MARCO****FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA**

Laugarren artikuluko 2. puntuari beste lerroalde bat eransteko emendakina. Horra testua:

Debekatuta dago olioak erretzea Nafarroako Foru Komunitatearen eremuan, non-eta hondakin toxiko arriskugarri sailkapena kendu ez zaien, erre baino lehen, tratamendu fisikorako plantan.

Zioak: sailkapena kenduta duten olioak baino ez dira erregaitzat hartzen, eta beste edozein erregai likido bezala merkaturatzeko arautzen.

Hondakin Berezien Plan Kudeatzailea aztertu zenean, eta, gero, Nueva Izquierdak horri buruz aurkeztu zuen mozioan, erre baino lehen hondakin toxiko arriskugarri sailkapena kendu ez zaion olio erabili behar ez zelakoa eztabaidatu zen; izan ere, hala ezarri baita, Europako Batasunak berak balorazio sistematzat kontabilizatuko badu.

Nafarroan ez dago olioari tratamendua eman eta sailkapena kentzeko zentrorik, olio erre ahal izateko, gero; haatik, sailkapena kendu gabeko olioak erabiltzen ari dira Nafarroan erregaitzat.

10. EMENDAKINA**«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»****PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA**

Laugarren artikuluko 3. zenbakiko 2. atala aldatzeko emendakina.

Laugarren artikuluko 3. zenbakiko 2. atala aldatzea: "Hondakin bereziak deuseztearen bidez kudeatzeko baimena ukatzen ahal du Nafarroako Gobernuak, eskaera egiten den egunean Foru Komunitatean hondakin berezien produkzio bolumenari buruz duen informazioa kontuan hartuta".

Zioak: ebazten duenak erakutsi behar du ebazpena egokia dela.

6. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

11. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Seigarren artikuluko 2. zenbakiko bigarren lerroaldea aldatzeko emendakina: "...zuzpertzeko sustapen sistemak..."

Zioak: aukera gehiago.

7. ARTIKULUARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

12. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Zazpigarren artikulua hiru garren lerroaldea aldatzeko emendakina: "... baina bai gainerako departamuentakoren baten txostena..."

Zioak: aukera gehiago.

13. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Zazpigarren artikulua bosgarren lerroaldea aldatzeko emendakina: "... hala eskatzen duten udalei, haiekin hitzarmena egin ondoren, udal tasaren zenbatekoaren norakoari buruz..."

Zioak: tasa, laguntza teknikoaren gastuari aplikatzea.

14. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Zazpigarren artikulua bosgarren lerroaldeari gehikuntza egiteko emendakina.

Hauxe erantsi zazpigarren artikulua bosgarren lerroaldeari: "... hurrengoak baloratzeko asmoz: jarduera lizentziarako espedienteetan ezarri beharreko neurri zuzentzaileak eta espe-

dienteen gainerako gorabeherak, baita legezkotasunari egokitzen ote zaizkion ere".

Zioak: laguntza tekniko osoa.

LEHEN XEDAPEN GEHIGARRIARI AURKEZTURIKO EMENDAKINA

15. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

Lehen xedapen gehigarriari zerbait eransteko emendakina.

Hauxe erantsi lehen xedapen gehigarriari: "eta baita eranskinen edukia zabaltzeko ere, arrazoi bidez".

Zioak: eranskinetikiko harremana malgutu.

1. ERANSKINARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

16. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

I. Eranskinari, hau da, "Hondakin berezien tramenduan aplika daitezkeen metodoak. Baloratze lanak" izenekoari, aurkeztu zaion emendakina, kentzekoa:

Baloratzeko lehen eragiketa kentzea proposatzen da. Hala dio: "Nagusiki erregai gisa edo energia sortzeko beste baliabide bat bezala erabiltzea".

Zioak: Europako Batasunaren zuzentzaiekin bat ez datozen jarduerak saihestea xede duten beste emendekin batzuekin bat etortzearen.

17. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

I. Eranskina aldatzeko emendakina.

Olioak leheneratzea edo beste zerbaitetan erabiltzea.

Hauxe kentzea proposatzen da: "edo beste zerbaitetan erabiltzea".

Zioak: hondakin toxiko edo arriskugarrien sailkapena kendu ez zaien olioak erretzea saihestu nahi da, Europako Batasunaren arauak xedatu dutenarekin bat.

18. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

I. Eranskina aldatzeko emendakina.

Zoruan edo zorupean biltzea.

Hauxe kentzea proposatzen da: "edo zorupean".

Zioak: zorupean biltzeko aukerak azterketa berezi eta zehatza beharko luke, eta orain ez digute horrelakorik aurkeztu; beraz, hobe da aukera hori kentzea.

19. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

I. Eranskina aldatzeko emendakina.

I. Eranskinen deusezteko lanen artean, "Zoruan edo zorupean biltzearen" ordez, "Zoruan biltzea" jarri.

Zioak: Hondakinen Planean ez da halakorik aurreikusi.

20. EMENDAKINA

MARTIN LANDA MARCO

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

I. Eranskinari, hau da, "Hondakin berezien tratamenduan aplika daitezkeen metodoak. Deusezteko lanak" izenekoari, aurkeztu zaion emendakina, kentzekoa:

Deusezteko eragiketa bat kentzea proposatzen da. Hala dio: "Erraustea".

Zioak: Europako Batasunaren zuzentarauekin bat ez datozen jarduerak saihestea xede duten beste emendakin batzuekin bat etortzearen.

21. EMENDAKINA

FERMIN CIAURRIZ GOMEZ

FORU PARLAMENTARI JAUNAK AURKEZTUA

I. Eranskinari aurkeztu zaion emendakina, kentzekoa: deusezteko eragiketa bat kentzea proposatzen da. Hala dio: "Erraustea".

Zioak: Parlamentu honek hartutako erabakiekin bat etortzearen.

22. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

I. Eranskinari aurkeztu zaion emendakina, kentzekoa: deusezteko eragiketa bat kentzea proposatzen da. Hala dio: "Erraustea".

Zioak: Nafarroako Parlamentuak berrikitan hartu duen erabaki batek ez du aukera hori aintzat hartu, etorkizunerako.

23. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDAEZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

I. Eranskinari aurkeztu zaion emendakina, hurrengo era esteko asmoz:

"BERRIRO ERABILTZeko LANAK

– Disolbatzaile gisa erabiltzen ez diren gai organikoak birziklatzea edo berreskuratzea (ongarria eratzeko lanak eta beste eraldaketa biologiko batzuk barne direla).

– Metalak edo konposatu metalikoak birziklatzea edo berreskuratzea.

– Beste gai ez-organiko batzuk birziklatzea edo berreskuratzea."

Zioak: beharrezko deritzogu horiek sartzeari.

II. ERANSKINARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

24. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

II. Eranskinari gehikuntza egiteko emendakina.

Hondakin berezien tratamenduan eskura dauden teknologiarik onenak zehazteko kontuan hartu beharrekoa izeneko II. Eranskinari beste puntu bat gehitzeko proposamena, hurrengo testuarekin:

8. Gaur egun biltegian gordetzen edo deuseztera bidaltzen diren hondakinak berriro erabiltzeko aurrerapen teknikoak izateko aukera.

Zioak: biltegitratzeko edo deusezteko diren hondakinak etorkizunean berriro erabiltzeko aukera kontuan izatea.

III. ERANSKINARI AURKEZTURIKO EMENDAKINAK

25. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

III. Eranskinetik zerbait kentzeko emendakina.

“Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren txostenaren menpeko ez diren jarduera sailkatuen zerrenda” izeneko III. Eranskinetik kendu:

3. Hiltegiak.

Zioak: haien jardueraren kopuruarengatik eta jardueraren ingurugiro-eraginarengatik.

26. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

III. Eranskinetik zerbait kentzeko emendakina.

Hirugarren puntua –hiltegiak– kentzeko proposamena.

Zioak: beharrezko deritzogu kentzeari.

27. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

III. Eranskinari aldaketa egiteko emendakina.

“Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren txostenaren menpeko ez diren jarduera sailkatuen zerrenda” izene-

ko III. Eranskineko 4. puntuaren ordeztu, hurrengo jarri:

4. Abeltzaintzako ustiategi txikiak, erregelamenduz ezarritako animalia kopuru mugatuarekin.

Zioak: argiago utzi ustiategi txikiak direla.

28. EMENDAKINA

«IZQUIERDA UNIDA- EZKER BATUA DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

III. Eranskinetik zerbait kentzeko emendakina.

Laugarren puntua - Abeltzaintzako ustiategiak, erregelamenduz ezarritako animalia kopuru mugatuarekin - kentzeko proposamena.

Zioak: beharrezko deritzogu kentzeari.

29. EMENDAKINA

«NAFARROAKO DEMOKRATEN ELKARGUNEA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

III. Eranskineko 7. atala aldatzeko emendakina.

III. Eranskineko 7. atala aldatzeko proposamena.

Hauexek kendu: dantzalekuak, diskotekak eta josteta jokoetarako aretoak.

Zioak: ingurugiro-arrisku handia.

30. EMENDAKINA

«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA»

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

III. Eranskina aldatzeko emendakina.

“Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren txostenaren menpeko ez diren jarduera sailkatuen zerrenda” izeneko III. Eranskineko 8. puntuan, hurrengo kentzea proposatzen da: kanpingak.

Zioak: haien jardueraren kopuruarengatik eta jardueraren ingurugiro-eraginarengatik.

31. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

III. Eranskina aldatzeko emendakina.

“Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren txostenaren menpeko ez diren jarduera sailkatuen zerrenda” izeneko III. Eranskineko 10. puntuaren ordeztu, hurrengo jarri:

10. Gasolindegia eta norberaren hornidurarako biltontziak, erregelamenduz zehaztuko diren azalera- eta instalaturiko potentzia-mugekin.

Zioak: tratamendu ezberdina eman nahi zaio jarduerari, haren bolumenaren arabera.

32. EMENDAKINA**«NAFARROAKO DEMOKRATEN
ELKARGUNEA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

III. Eranskineko 10. puntuari gehikuntza egiteko emendakina.

Hauxe erantsi III. Eranskineko 10. lerroaldeari: “hiriguneen barruan daudenak salbu”.

Zioak: kontrolatu beharra.

33. EMENDAKINA**«SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO
DE NAVARRA»**

PARLAMENTARI TALDEAK AURKEZTUA

III. Eranskinari aldaketa egiteko emendakina.

“Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuaren txostenaren menpeko ez diren jarduera sailkatuen zerrenda” izeneko III. Eranskineko 11. puntuaren ordeztu, hurrengo jarri:

11. Ibilgailuak konpontzeko tailerrak, erregelamenduz zehaztuko diren azalera- eta instalaturiko potentzia-mugekin.

Zioak: tratamendu ezberdina eman nahi zaio jarduerari, haren bolumenaren arabera.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Lege proiektua

OSOKO BILKURAK BAZTERTUTAKO OSOKO EMENDAKINAK

Nafarroako Parlamentuak, 1998ko azaroaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak, «Askotariko» Parlamentari Taldeko Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak, «Askotariko» Parlamentari Taldeko Fermín Ciáurriz Gómez Foru Parlamentari jaunak eta Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak eta «Ezker Abertzalea» Parlamentari Tal-

deak Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko emendakinak baztertzea erabaki zuen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 130.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, proiektu hori Ekonomi, Ogasun eta Aurrekontu Batzordera igorri da.

Iruñean, 1998ko azaroaren 27an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

1999ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua

OSOKO BILKURAK BAZTERTUTAKO OSOKO EMENDAKINAK

Nafarroako Parlamentuak, 1998ko azaroaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak, «Askotariko» Parlamentari Taldeko Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak, «Askotariko» Parlamentari Taldeko Fermín Ciáurriz Gómez Foru Parlamentari jaunak eta Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak eta «Ezker Abertzalea» Parlamentari Tal-

deak 1999ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuari aurkeztutako osoko emendakinak baztertzea erabaki zuen.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 130.5 artikuluan ezarritakoarekin bat, proiektu hori Ekonomi, Ogasun eta Aurrekontu Batzordera igorri da.

Iruñean, 1998ko azaroaren 27an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleen ordainketei buruzko Foru Legea

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1998ko azaroaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleen ordainketei buruzko Foru Legea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 143. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko azaroaren 27an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleen ordainketei buruzko Foru Legea

1997ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 31ko 1/1997 Foru Legearen 22. artikulua Nafarroako Unibertsitate Publikoaren aurrekontuko langile-gastuen kapituluaren sartu beharreko kontusail bat ezarri zuen, "unibertsitateko irakasleen ordainketak gehitzeko, indarra duen legeriaren arabera. Hala ere, aipatu kopurua erabiltzeko baldintza izango da Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Unibertsitate Publiko irakasleen ordainketei buruz hartu duen erabakia, 1993ko urtarrilaren 1etik aitzinako ondorioekin eta organo eskudunek proposatuta".

1. artikulua. Nafarroako Unibertsitate Publiko Gizarte Kontseiluak, Gobernu Batzordeak proposaturik, Unibertsitatearen Erreformari buruzko

abuztuaren 25eko 11/1983 Lege Organikoaren 46.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, aipatutako Lege Organikoaren 33. artikulua 1. idazatian esaten diren kidegoetakoak diren irakasle funtzionarioei ordainketa kontzeptuak emateko erabakia hartu ahalko du.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gizarte Kontseiluak Parlamentuari bidaliko dizkio, ezagun ditzan, irakasleentzako ordainketa osagarria banaka emateko aintzat hartu dituen irizpideak, banakako osagarri hori betetzen hasi baino lehen.

2. artikulua. Unibertsitatearen urteko aurrekontuan ondokoak zehaztuko dira:

a) Langileen gastuen kapituluaren barrenean, 1. artikuluan aipatzen diren ordainketa kontzeptuak aplikatuz heldu den zenbateko osoa.

b) Onuradun bakoitzari dagokionez, zenbateko oso hori banatzeko Gizarte Kontseiluak –Gobernu Batzordeak proposatuta– hartu dituen irizpideak, Unibertsitatearen Erreformari buruzko abuztuaren 25eko 11/1983 Lege Organikoaren 46.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

c) Banakako ordainketa kontzeptu hauetako bakoitza jasoko duten pertsonen banakako zerrenda, bakoitzak jasoko dituen zenbatekoak zehaztuta.

3. artikulua. Lehenengo artikuluan aipatzen diren ordainketa kontzeptuak aplikatzeko urtean

baimendutako gehieneko zenbatekoa, osotara, Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legeek ezarriko dutena izanen da.

Xedapen gehigarria

Bizilekuko osagarria, irakasteaz arduratzeagatikoa eta irakasleak parekatzeko deiturikoak direla-eta, 1993ko urtarrilaren 1etik 1998ko urtarrilaren 1era bitartean Nafarroako Unibertsitate Publikoko langileei emandako zenbatekoen aplikazioari buruzko erabakia Gizarte Kontseiluak hartuko du, Unibertsitatearen Erreformari buruzko abuztuaren 25eko 11/1983 Lege Organikoan xedatutakoarekin bat, baina ezin izanen da aurre-

kontu ekitaldi bakoitzean benetan emandako zenbatekoa gehitu.

Xedapen iragankorra

1998ko aurrekontu ekitaldirako baimendutako gehieneko zenbateko osoa, 1998ko urtarrilaren 1etik aitzina ondorioak izateko aplikatu ahalko da, 1. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Azken xedapena

Foru Lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aitzina hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Administrazio jarduleak urbanizazio-zametan partehartzerik izan ez dezan, lurjabeek lurzorua derrigorrez eta doan lagatzearen ondoriozkoetan

OSOKO BILKURAK BAZTER UTZIA

«Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak ondoko Foru Lege proposamena aurkeztu zuen: "Foru Lege proposamena, Administrazio jarduleak urbanizazio-zametan partehartzerik izan ez dezan, lurjabeek lurzorua derrigorrez eta doan lagatzearen ondoriozkoetan". Biltzarrak, 1998ko azaroaren 25ean egindako Osoko

Bilkuran, aipatutako Foru Lege proposamena bazter uztea erabaki zuen. Proposamen hori 1998ko urriaren 13ko 77 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 27an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Lege proposamena, hirigintza probetxamenduaren arloko presako neurriei buruzkoa

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Biltzarrak, 1998ko azaroaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak aurkeztutako hirigintza probetxamenduaren arloko presako neurriei buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea

erabaki zuen. Proposamen hori 1998ko azaroaren 2ko 84 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 27an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Foru Lege proposamena, lanaldia 35 ordukoa izan dadin laguntzeko eta lan denbora banatzeko neurri publikoak ezartzeari buruzkoa

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

Biltzarrak, 1998ko azaroaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztutako Foru Lege proposamen bat aintzat hartzea erabaki zuen; hain zuzen ere, lanaldia 35 ordukoa izan dadin laguntzeko eta lan denbora banatzeko neu-

rri publikoak ezartzeari buruzkoa. Proposamen hori 1998ko azaroaren 2ko 84 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 27an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena, administrazioarekin kontratatu ahal izateko betekizunen arloko hainbat kontzepturi dagokiona

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTUA

«Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak ondoko Foru Lege proposamena aurkeztu zuen: "Nafarroako Administrazio Publikoen Kontratuei buruzko ekainaren 16ko 10/1998 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena, administrazioarekin kontratatu ahal izateko betekizunen arloko hainbat kontzepturi dagokiona". Biltzarrak, 1998ko azaroaren 25ean

egindako Osoko Bilkuran, aipatutako Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori 1998ko urriaren 27ko 82 zk.ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 1998ko azaroaren 27an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

G saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parlamentura 1998ko martxoan bidali dituen Ebazpenen eta Foru Agiduaren bitartez gauzatutako aurrekontu-aldaketak eta Kontuen Ganbarak horiei buruz emandako txostenena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko apirilaren 21ean egindako bilkuran, erabaki zuen Kontuen Ganbarari txostena eskatzea 1998ko martxoan Nafarroako Parlamentura bidali ziren Ebazpenen eta Foru Aginduaren bidez gauzatutako aurrekontu-aldaketen legezketasunari buruz.

Era berean, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko uztailaren 1ean egindako bilkuran, hauxe erabaki zuen: Kontuen Ganbarak aipatu Ebazpenei eta Foru Aginduari buruz emandako txostenaren edukiaz jabetu dela adieraztea eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 1998ko irailaren 10ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

“31/1998 EBAZPENA, urtarrilaren 29koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu-sorkuntzaren bidezko aurrekontu-aldaketak baimentzen dituena.

Ekonomi eta Ogasun Departamentuak kreditugehikuntza eskatu du ondoko kontusailean: “Funtzionarioen guztizko ordainsaria” kontusaila; lerroa, 07640-0; zenbatekoa, 4.150.000 pezeta. Ondoko kontusailean izandako dirusarrera handiangoekin finantzatu da: “IPE transferentziak” kontusaileko 35695-7 lerroa.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 50. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emaniko 233/1996 Foru Aginduaren bidez nire esku utzitako ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehena.- 1998ko indarreko aurrekontuan kreditu-sorkuntza egitea gastuen ondoko kontusaile-

an: “Funtzionarioen guztizko ordainsaria” 11620-1230-1341 kontusaila; proiektua, 16001; lerroa, 07640-0; zenbatekoa, 4.150.000 pezeta. Ondoko kontusailean izandako dirusarrera handiangoekin finantzatu da: “IPE transferentziak” 11620-4909 kontusaila; proiektua, 16001; lerroa, 35695-7.

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Ekonomi eta Ogasun Departamentura (Kanpo Ekintzaren Zerbitzua), Kontabilitate eta Aurrekontu Ataletara eta aipatu Departamentuan den Kontuhartzaitza Delegatura.

Iruñean, 1998ko urtarrilaren 29an.

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez”

“40/1998 EBAZPENA, otsailaren 5koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditugehikuntzaren bidezko aurrekontu-aldaketa baimentzen duena.

Ikusirik Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Idazkaritza Teknikoak egin duen eskaria; haren bidez kreditugehikuntza eskatzen da kontusail honetan: “Kalteordainak eta epaiak exekutatzea” kontusaila; lerroa, 23920-1; zenbatekoa, 14.576.678 pezeta. Ondoko kontusailean izandako dirusarrera handiangoekin finantzatu da: “Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea” kontusaila; lerroa, 35465-2.

1997rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 31ko 1/1997 Foru Legeko 4. artikuluko 1. puntuko a) idaztiak eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 45. artikuluko ezarritakoekin bat, eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emaniko 233/1996 Foru Aginduaren bidez nire esku utzitako ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehena.- 1998ko indarreko gastuen aurrekontuan kreditu-gehikuntza egitea ondoko kontusailean: "Kalteordainak eta epaiak exekutatzeari" 60100-4809-5111 kontusaila; proiektua, 00000; lerroa, 23920-1; zenbatekoa, 14.576.678 pezeta. Ondoko kontusailean izandako dirusarrera handiagoen kargura finantzatzeko da: "Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea" 11400-8700 kontusaila; proiektua, 12000; lerroa, 35465-2.

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Herrilan, Garraio eta Komunikazio Departamentura (Idazkaritza Teknikoa), Kontabilitate eta Aurrekontu Ataletara eta aipatu Departamentuan den Kontuhartzailletza Delegatura.

Iruñean, 1998ko otsailaren 5ean

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

57/1998 EBAZPENA, otsailaren 10ekoa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu-gehikuntzaren bidezko aurrekontu-aldaketa baimentzen duena.

Ikusirik Lehendakaritza eta Barne Departamentuko Funtzio Publikoaren Antolamenduko Atalak kreditu-gehikuntza eskatu duela ondoko kontusailean: "Epaiak exekutatzeari" kontusaila; lerroa, 01990-2; zenbatekoa, 270.344 pezeta. Ondoko kontusailean izandako dirusarrera handiagoekin finantzatzeko da: "Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea" kontusaila; lerroa, 35465-2.

1997rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 31ko 1/1997 Foru Legeko 4. artikuluko 1. puntuko a) idazatiak eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 45. artikuluko ezarritakoarekin bat, eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emaniko 233/1996 Foru Aginduaren bidez nire esku utzitako ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehena.- 1998ko indarreko gastuen aurrekontuan kreditu-gehikuntza egitea ondoko kontusailean: "Epaiak exekutatzeari" 04000-1709-1226 kontusaila; proiektua, 20002; lerroa, 01990-2; zenbatekoa, 270.344 pezeta. Ondoko kontusailean izandako dirusarrera handiagoen kargura finantzatzeko da: "Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea" 11400-8700 kontusaila; proiektua, 12000; lerroa, 35465-2.

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Lehendakaritza eta Barne Departamentura (Funtzio Publikoaren Antolamenduko Atala), Kontabilitate eta Aurrekontu Ataletara eta

aipatu Departamentuan den Kontuhartzailletza Delegatura.

Iruñean, 1998ko otsailaren 10ean

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

"64/1998 EBAZPENA, otsailaren 12koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu-gehikuntzaren bidezko aurrekontu-aldaketa baimentzen duena.

Ikusirik Lehendakaritza eta Barneko Laguntza Juridiko eta Administratiboaren Zerbitzuak egindako eskaria; hartan, kreditu-gehikuntza eskatzen da ondoko kontusailean: "Dirulaguntzak" kontusaila; lerroa, 04230-0; zenbatekoa, 1.500.000 pezeta. Ondoko kontusailean izandako dirusarrera handiagoekin finantzatzeko da: "Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea"; lerroa, 35465-2.

1997rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 31ko 1/1997 Foru Legeko 4. artikuluko 1. puntuko n) idazatiak eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 45. artikuluko ezarritakoarekin bat, eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emaniko 233/1996 Foru Aginduaren bidez nire esku utzitako ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehena.- 1998ko indarreko gastuen aurrekontuan kreditu-gehikuntza egitea ondoko kontusailean: 02400-4809-2211 kontusaila; proiektua, 50002; lerroa, 04230-0; "Dirulaguntzak" kontusaila; zenbatekoa, 1.500.000 pezeta. Ondoko kontusailean izandako dirusarrera handiagoen kargura finantzatzeko da: "Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea" 11400-8700 kontusaila; proiektua, 12000; lerroa, 35465-2..

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Lehendakaritza eta Barne Departamentura (Barneko Laguntza Juridiko eta Administratiboaren Zerbitzua), Kontabilitate eta Aurrekontu Ataletara eta aipatu Departamentuan den Kontuhartzailletza Delegatura.

Iruñean, 1998ko otsailaren 12an

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

"72/1998 EBAZPENA, otsailaren 23koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu-gehikuntzaren bidezko aurrekontu-aldaketa baimentzen duena.

Ikusirik Lehendakaritza eta Barne Departamentuko Langileri Zerbitzuaren eskaria; hartan, kreditu-gehikuntza eskatzen da ondoko kontusailean: "Jubilazio areratuarengatik kalteordainak, 259/1998 Foru Dekretua" kontusaila; lerroa, 02070-6; zenbatekoa, 6.037.381 pezeta. Ondoko kontusailean izandako dirusarrera handiagoeekin finantzatu da: "Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea"; lerroa, 35465-2.

1997rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 31ko 1/1997 Foru Legeko 4. artikuluko 1. puntuko i) idazatiak eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 45. artikuluko ezarritakoarekin bat, eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emaniko 233/1996 Foru Aginduaren bidez nire esku utzitako ahalmenak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehena.- 1998ko indarreko gastuen aurrekontuan kreditu-gehikuntza egitea ondoko kontusailean: "Jubilazio areratuarengatik kalteordainak, 259/1998 Foru Dekretua" 04120-1614-3141 kontusaila; proiektua, 20002; lerroa, 02070-6; zenbatekoa, 6.037.381 pezeta. Ondoko kontusailean izandako dirusarrera handiagoen kargura finantzatu da: "Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea" 11400-8700 kontusaila; proiektua, 12000; lerroa, 35465-2.

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Lehendakaritza eta Barne Departamentura (Langileriaren Zerbitzua), Kontabilitate eta Aurrekontu Ataletara eta aipatu Departamentuan den Kontuhartzaitza Delegatura.

Iruñean, 1998ko otsailaren 23an

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

"74/1998 EBAZPENA, otsailaren 24koa, Ekonomi Zuzendari Nagusiak emana, kreditu-transferentziaren bidezko aurrekontu-aldaketa baimentzen duena.

Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentuak kreditu-transferentzia eskatu du 40001 proiektuko "Imarkoango zentrorako ohiko transferentziak kontusaileko 30190-0 lerrotik 41001 proiektuko Kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsarako jarduerak kontusaileko 30490-9 lerroa. Zenbatekoa: 300.000 pezeta.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legeko 47. artikuluko ezarritakoari jarraituz, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak kapitulu ekonomiko bereko kredituen

arteko transferentziak baimen ditzake, Departamentu bereko programa ezberdinetakoak izanik aipatu programen helburuak aldatzen ez badira. Ekonomi eta Ogasun Kontseilariak urriaren 7an emandako 233/1996 Foru Aginduak eskualdatu dizkidanak erabiliz,

EBATZI DUT:

Lehena.- 1998ko gastuen aurrekontuan kreditu transferentzia egitea 40001 proiektuko "Imarkoango zentrorako ohiko transferentziak 82110-4701-7621 kontusaileko 30190-0 lerrotik 41001 proiektuko Kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsarako jarduerak 82120-4810-4442 kontusaileko 30490-9 lerroa. Zenbatekoa: 300.000 pezeta.

Bigarrena.- Ebazpen hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Departamentura, Kontabilitate eta Aurrekontu Ataletara eta aipatu Departamentuan den Kontuhartzaitza Delegatura.

Iruñean, 1998ko otsailaren 24an

Ekonomi Zuzendari Nagusia: Ignacio Arrizabala Rodríguez"

"39/1998 FORU AGINDUA, de 27 otsailaren, Ekonomi eta Ogasun Kontseilariarena, kreditu-gainerapenen bidezko aurrekontu-aldaketak baimentzen dituena.

Ikusirik indarreko Gastuen Aurrekontuan 1997 ekitaldiko kitapenean deusezturiko kreditu-gerakinak gaineratzeko Toki Administrazioako Departamentuak egin duen eskaria. Hona haiei dagozkien kontzeptuak:

- Kontusaila: 021310-7600-4411; proiektua, 13001; lerroa, 90006-1; izena: "Presio altuko honidurarako plan zuzendaria"; zenbatekoa, 1.111.365.543 pezeta.

- Kontusaila: 21300-7600-4411; proiektua: 13001; lerroa: 92006-2; "Ibaien arazketa eta saneamendurako plan zuzendaria"; zenbatekoa: 693.054.033 pezeta.

- Kontusaila: 21320-7600-4421; proiektua: 13001; lerroa: 90007-0; izena: "Hiri hondakin solidoen plan zuzendaria. Tratamendua"; zenbatekoa: 142.817.303 pezeta.

- Kontusaila: 21320-7600-4421; proiektua: 13001; lerroa: 92010-0; izena: "Hiri hondakin solidoen plan zuzendaria. Bilketa"; zenbatekoa: 50.966.720 pezeta.

- Kontusaila: 21310-7600-9122; proiektua: 13001; lerroa: 92005-4; izena: "Inbertsio Planerako azterlanak egitea"; zenbatekoa: 8.141.975 pezeta.

- Kontusaila: 21320-7600-4323; proiektua: 13002; lerroa: 90004-5; izena: "Lurzorua jartzea"; zenbatekoa: 675.139.905 pezeta.

- Kontusaila: 21310-7600-4411; proiektua: 13002; lerroa: 92007-0; izena: "Plan zuzendarietan sartu ez diren presio altuko hornidura"; zenbatekoa, 24.045.692 pezeta.

- Kontusaila: 21320-7600-4411; proiektua: 13002; lerroa: 90005-3; izena: Hornidura eta saneamendu sare lokalak; zenbatekoa; 1.101.685.078 pezeta.

- Kontusaila: 21320-7600-4431; proiektua: 13002; lerroa: 92008-9; Elektrifikazioa; zenbatekoa: 48.001.638 pezeta.

- Kontusaila: 21320-7600-4431; proiektua: 13002; lerroa: 92009-7; izena: Argiteria publikoa; zenbatekoa: 174.049.556 pezeta.

- Kontusaila: 21320-7600-5343; proiektua: 13002; lerroa: 90012-6; izena: "Bide lokalak"; zenbatekoa: 107.112.523 pezeta.

- Kontusaila: 21320-7600-9122; proiektua: 13002; lerroa: 90017-7; izena: "Udalaren eraikinak"; zenbatekoa: 202.916.476 pezeta.

- Kontusaila: 21320-7600-5343; proiektua: 13002; lerroa: 92018-6; izena: "Kanposantuak"; zenbatekoa: 116.006.114 pezeta.

- Kontusaila: 21320-7600-9122; proiektua: 13002; lerroa: 92011-9; izena: "Garapen lokala"; zenbatekoa: 219.253.916 pezeta.

- Kontusaila: 21330-7600-9122; proiektua: 13000; lerroa: 09800-1; izena: "Komunitateko fondekin finantziatu beharreko plan osagarria; 2 eta 5b helburua; zenbatekoa: 618.802.108 pezeta.

- Kontusaila: 21300-7600-1241; proiektua: 13000; lerroa: 09755-2; "Eskualde behartsuentzako plan berezia"; zenbatekoa; 600.000.000 pezeta.

Proposamena da kredituen gainerapen hau -5.893.358.580 pezetakoa- "35465-2" lerroaren kargura finantziatzea.

1998rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 21/1997 Foru Legearen 19. artikuluan eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/1988 Foru Legearen 52. artikuluan ezarritakoaren indarrez,

AGINDU DUT:

Lehena.- 1998ko indarreko aurrekontuan, ondoko kontusailetan, 1997ko ekitaldiko kitapenean deusezturiko kreditu-gerakinak gaineratzea:

- Kontusaila: 21310-7600-4411; proiektua: 13001; lerroa: 90006-4; izena: "Presio altuko honidurararako plan zuzendaria"; zenbatekoa: 1.111.365.543 pezeta.

- Kontusaila: 21300-7600-4411; proiektua: 13001; lerroa: 92006-5; izena: "Ibaien arazketa eta saneamendurako plan zuzendaria"; zenbatekoa: 693.054.033 pezeta.

- Kontusaila: 21320-7600-4421; proiektua: 13001; lerroa: 90007-2; izena: "Hiri hondakin solidoen plan zuzendaria. Tratamiento"; zenbatekoa: 142.817.303 pezeta.

- Kontusaila: 21320-7600-4421; proiektua: 13001; lerroa: 92010-3; izena: "Hiri hondakin solidoen plan zuzendaria. Bilketa"; zenbatekoa: 50.966.720 pezeta.

- Kontusaila: 21310-7600-9122; proiektua: 13001; lerroa: 92005-7; izena: "Inbertsio Planerako azterlanak egitea"; zenbatekoa: 8.141.975 pezeta.

- Kontusaila: 21320-7600-4323; proiektua: 13002; lerroa: 90004-8; izena: "Lurzorua jartzea"; zenbatekoa: 675.139.905 pezeta.

- Kontusaila: 21320-7600-4411; proiektua: 13002; lerroa: 90005-6; izena: "Hornidura eta saneamenduko sare lokalak"; zenbatekoa: 1.101.685.078 pezeta.

- Kontusaila: 21310-7600-4411; proiektua: 13002; lerroa: 92007-3; izena: "Plan zuzendarietan sartu ez diren presio altuko hornidura"; zenbatekoa: 24.045.692 pezeta.

- Kontusaila: 21320-7600-4431; proiektua: 13002; lerroa: 92008-1; izena: "Elektrifikazioak"; zenbatekoa: 48.001.638 pezeta.

- Kontusaila: 21320-7600-4431; proiektua: 13002; lerroa: 92009-0; izena: "Argiteria publikoa"; zenbatekoa: 174.049.556 pezeta.

- Kontusaila: 21320-7600-4449; proiektua: 13002; lerroa: 92018-9; izena: "Zementuak"; zenbatekoa: 116.006.114 pezeta.

- Kontusaila: 21320-7600-4411; proiektua: 13002; lerroa: 90017-0; izena: "Udalaren eraikinak"; zenbatekoa: 202.916.476 pezeta.

- Kontusaila: 21320-7600-4411; proiektua: 13002; lerroa: 92011-1; izena: "Toki garapena"; zenbatekoa: 219.253.916 pezeta.

- Kontusaila: 21320-7600-5343; proiektua: 13002; lerroa: 90012-9; izena: "Bide lokalak"; zenbatekoa: 107.112.523 pezeta.

- Kontusaila: 21330-7600-9122; proiektua: 13000; lerroa: 10020-3; izena: "Komunitateko fondoekin finantziatu beharreko plan osagarria"; zenbatekoa: 618.802.108 pezeta.

- Kontusaila: 21300-7600-9122; proiektua: 13000; lerroa: 92021-9; izena: "Eskualde behartsuetako azpiegituren plan berezia"; zenbatekoa: 600.000.000 pezeta.

Bigarrena.- Aipaturiko kreditu-sarrerak –zenbatekoak 5.893.358.580 pezeta jotzen du– 12000 proiektuko "Aurreko ekitaldietako superabita aplikatzea" 11400-8700 kontusaileko 35465-2 lerroan izandako dirusarrera handiagoekin finantziatuko dira.

Hirugarrena.- Foru Agindu hau igortzea Nafarroako Parlamentura, Toki Administrazioako Departamentura, Kontabilitate eta Aurrekontu Ataletara eta aipatu Departamentuan den Kontuhartzailatza Delegatura.

Iruñean, 1998ko otsailaren 27an

Ekonomi eta Ogasun Kontseilaria: José María Aracama Yoldi

KONTUEN GANBARAREN TXOSTENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1998ko apirilaren 21ean harturiko Erabakiaren bidez, aurrekontuetan eginiko hainbat aldaketaren legezkotasunari buruz txostena eskatzea onartu zuen. Nafarroako Gobernuak Ekonomi Zuzendari Nagusiaren eta Ekonomi eta Ogasun Kontseilariaren zenbait ebazpen eta foru aginduk eragin zituzten aldaketa horiek, eta aurtengo martsoan igorri zituzten Parlamentura. Horiei buruz, Kontuen Ganbarak txosten hau eman du:

Aurrekontu-aldaketak zenbait kreditu-transfereztzia, kreditu-sorkuntza edo kreditu-gainerapen dira, indarra duen legediarekin bat datozenak, kasu horretarako eskumena duen erakundeak egin baititu. Bestalde, aldaketa horiek bat datoz Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko abenduaren 26ko 8/88 Foru Legeko 45.etik 53.era artikuluetan ezarritakoarekin, bai eta 1998 ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko 1997ko abenduko 21/1997 Foru Legearen 3. eta 4. artikuluetan ere.

Iruñean, 1998ko uztailaren 1ean.

Lehendakaria: Luis Muñoz Garde

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU EMAILEAK

Frekuentzia modulatu uhin metrikozko irrati emisoretarako baimenak emateko kontratazio-espeditari buruzko Parlamentuko Ikerketa Batzordea sortzea

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 1998ko azaroaren 25ean egindako Osoko Bilkuran, frekuentzia modulatu uhin metrikozko irrati emisoretarako baimenak emateko kontratazio-espeditari buruzko Parlamentuko Ikerketa Batzordea sortzea onetsi zuen.

Biltzarreko Erregelamenduko 112. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agindu da.

Iruñean, 1998ko azaroaren 27an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía



NAFARROAKO PARLAMENTUKO
ALDIZKARI OFIZIALA

HARPIDETZA
ORRIA

Izen-deiturak

Helbidea

Telefonoa *Hiria*

P. K. *Probintzia*

Ordaintzeko:

Dirua Nafarroako Aurrezki Kutxako 2054/0000 41 110007133.9 zenbakiko kontu korrontera igorri
edo bertan sartu

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA Urte bat 5.900 pta. Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa 135 » . Bilkura Egunkariaren aleko prezioa 170 » .	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
---	--